



LAN TALDEAREN BILERA	
DATA: 2024.11.04	BILERA ZENBAKIA: 9
ORDUA ETA LEKUA: 17:30tan Itsasondoko Udalean	
PARTEHARTZAILEAK: Bihotza (gizarte langilea), Elena (Udal zinegotzia), Jabi, Maider, Maddi eta Erkuden	

EGINDAKO LANAREN LABURPENA

<p>LANDUTAKO GAI ORDENA</p> <p><u>BI-PIL Elkarteak BIXI-BIZI programaren aurkezpena; Abenduak 16</u></p> <p>Herri osoari zabalduko den aurkezpena izanik ere, adinez nagusi, eta erretiroa orain dela gutxi izan duten biztanlegoari zuzenduko zaio. Helburuak; Gorputz osasunaren eta osasun emozioanalaren garrantziaz jabetzea, eta hau lantzeko lehen pausoak ematen hastea. Eragile zuzenak topatzen saiatuko gara, eta agian garai horretan daudenei gonbidapen zuzena ere egiteko aukera ausnartuko da.</p> <p><u>Azaroak 22 JOSTAILUEN AZOKA</u></p> <p>Erkudenek prestatuko du kartela eta ondoren Maider, Maddi eta Elenaren bitartez antolatuko da azoka bera.</p> <p><u>Abenduak 10 Gizarte Zerbitzuen aurkezpena</u></p> <p>Bihotzak proposatu du Abenduan Bixi-Bizi programaren aurkezpena egin behar bada, agian egokiagoa izango dela Gizarte Zerbitzuen datorren urte hasierarako uztea, berak horrela denbora gehixeago izan dezakeelako prestaketa egiteko.</p> <p><u>Etxebizitza</u></p> <p>Erkudenek dagoeneko GESLAN lantaldeak burututako diagnostikoaren ondorioen bitartez, Itsasondon ur eta energia kontsumo gutxi eta egoera ez zahargarrian dauden etxebizitza hutsen zerrenda lortu du Mikelen bitartez. Zerrenda bera Mikelek datu babesa dela medio, Bihotza Gizarte Langileari pasako dizkio, datuak eskuan hutsik dauden etxebizitzaren jabeekin kontaktuan jarri ahal izateko.</p> <p>Bestetik zerrenda gure esku egongo denez, eta udala, administrazio publiko gisa bitartekari zuzena egiteko izan ditzazkeen arazoak saihesteko, Etxebideri galdetuko zaiola eha programarik badaukaten non bitartekari lana alde batetik egingo luketen eta bestetik</p>



etxebizitza alokairuan jarraituko duten jabeei arazorik egongo ez delaren bermea eskeini.

Aurrekontuak

Denbora luzez hitzegin da etxebizitzaren gaiaz eta aurrekontuena datorren batzorderako geratu da lantzeko.

- ETXEKO- LANAK / ARDURAK	NOIZKO?	ZEINEK?
Bixi-Bixi aurkezpenaren eragileak topatu	Abendua	Bihotza
Jostailuen AZOKA	Azaroak 22	Maider, Elena eta Maddi
Etxebizitza Hutsen zerrenda eta kontaktuak	Abendua	Bihotza
Etxebiderekon kontaktuan jarri eta bitartekari programaz galdetu	Azaroa	Mikel-Erkuden
Aurrekontuak eta aurtengo partiden gastuak	Azaroa	Bihotza

HURRENGO BILERA

ONGIZATE (Abendua 02 - 17:30 udaletxean)

- Udaletxean